

GARILAK 26 talde bizkaitarra 2011ko bukaeran sortu zuten erromeri esparrua lantzeko. Bizkaian indar handia lortu dute herri askotako jaiak sutu alaitu izan dituztelako. Garilak 26 taldea gaur egun dira Joanes Garmendia (baxu-jotzailea, alde zurretik E Gene taldean egon da eta Heisenberg taldeko gitarra da), Ieltxu Gimenez (bateria, Eresi eta Bonzo taldeetan jo izan du), Maria Lazkano (abeslaria, EHko haur kantari txapelduna 2009 eta 2011n), Eneko Benito (alboka eta albokote jotzailea, Hegoaize eta The Lasai taldeetan jo izan du), Iker Alvarez (gitarra, Ultima Alternativa, Mala Correa, E Gene, Bonzo dira bere aurreko taldeak), Josu Elorduy (trikitia, La Vieja taldean ibilitakoa). Ander Trabudua eta Unai Zabala Garilak 26 taldekideen orde ziren. Garilak 26 taldeak 2014an bi abeste berezi egin zituen. "Kanpomartxo" (Erandioko euskararen aldeko abestia) eta "Mende laurden" (Eguzkizaleak konpartsa- ren 25garren urteurrenko abestia). Garilak 26 taldeak dagoeneko 150 zuzeneko gora jo ditu plazaz plaza. 2016an taldeak sortutako abestiekin osatuko dute lehen diskoa.



Garilak 26 taldeak "Adrenalinaren zain" diskoa Ieltxu Gimenezek grabatu, nahastu eta masterizatu du 2015eko abenduan. Bestalde, "Mende laurden" abestia 2014an grabatu, nahastu eta masterizatu zuen Jose Lastrak Tio Pete estudioan. Diskoak laguntzaile hauek izan ditu: Xabi Solano (Esne Beltza) "Txoko iluna" abestian ahotsa. Pello Reparaz (Vendetta), ahotsa "Agur", "Mende laurden" abestietan. Maria Rivero (Siroka, Hutsa) koruak "Pertsona naiz" eta "Agur" abestietan, Urtzi Iza (Enkore) gitarra soloa "Agur" abestian. Txufo Wilson (Empty Files, Smoke Idols) "Bizirik gauden artean" abestian teklatuak eta efektuak. Zuriñe Hidalgo (Hesian) ahotsa "Mende laurden" abestian.



Garilak 26 erromeri talde bizkaitarraren lehen diskoak (Adrenalinaren zain) sei abesti berri ditu eta bonus track bezala Eguzkizaleak Bilboko konpartsa- ren 25garren urteurren ospatzeko propio egindako "Mende laurden" abestia. Garilak 26 taldeak rockaren doinu zabalak landu ditu diskoan baina beti uztartuta eta gidatuta hiru euskal musika tresna bereziekin, trikitia, alboka eta albokotea hurrenez hurren. Trikitia eta albokaren doinuek emango diote Garilak 26 taldeari euskal musika tradizionalarekin lotura, eta hori da euren musikaren abiapuntua herriz herri defendatzeko euskal tradizioaren ikuspegia rockaren jarrerarekin nahastuta.

kontratazioa 618 072 076 - 026



ADRENALINAREN ZAIN

Zuzenekoetan aktibatzen zaigun adrenalina sortzen digun adikzioa adierazi nahi dugu. Biran murgilduta gaudenetan kontzertu asko jotzen ditugu etengabe, ia atsedenik gabe, eta taula gainean publikoarekin konektatzen dugunean sortzen den atmosfera deskribatu nahi dugu. Musikarien bizimodu eta ogibi- deari eskainitako kantua da.

TXOKO ILUNA

Gaua eta jaiaren dualtasuna azalari- zi nahi du. Abestiak parrandaren ludi- kotasuna, plazera eta bere arriskuak ere agerian uzten ditu. Jai herrikoien defentsa, antolaketa eredu parte hartzaileak bultzatuta.

BI NOTA

Erakarpeneren magnetismoa, desira, sentsualitatea eta sexuaren indarra du oinarri. Abestiaren enbor nagusia diren bi noten eta bikotearen kideen arteko paralelismoa bilatu dugu, biko erritmoa, riff pisutsu eta letra beroaren konbinazioak sexu- ren intentsitatea entzulearen burura ekar dezan.

PERTSONA NAIZ

Borroka feministaren aldeko kantua da. Emakumeen bizitzaren hiru aro nagusiak (haurtzarora, nerabezarora eta heldutasuna) erabili ditugu, gaur eguneari pairatzen dituzten bidegabekeria eta erasoak salatzen xedeaz. Egoera hau gizarte- tek osotasunean (gizonezkoak emakumez- koak bezainbeste) konpondu behar du, guztion borroka baita.

BIZIRIK GAUDEN ARTEAN

Norbanakoaren bizimoduaren inguru- an hausnartzera bultzatzen gaituen kantua da, kanpo presioek eta gizarte- aren aurreiritziek gudan duten eraginaz eta gure bizimodua baldintzatzeko duten indarraz ohartarazteko idatzi dugu, guregandik espero denaz eta inposatutako moldez askatzera ausart gaitzen.

AGUR

"Gure Esku" herri ekimenari zuzendutako keinua da. Elkarren arteko harremana mozten ari den bikotearen metafora erabili dugu Euskal Herriaren independentzia prozesuak atzera bueltarik ez duela adierazteko. Letran Mikel Laboaren "Txoriak txori" abestiari erreferentzia egin diogu, Euskal Herria "hegoak moztu behar ez zaizkion" txoriaren izaera librearekin identifikatzeko, hitz joko ezberdinen bitartez.

MENDE LAURDEN

"Eguzkizaleak" konpartsa ekologista bilbotarraren 25. urteurren ospatzeko egin genuen kantua da. Konpartsa eta konpartsa- zaleen lanari, ibilbideari eta baloreei egindako omenaldia da.

Joanes Garmendia: baxua

Ieltxu Gimenez: bateria eta perkusioa

Maria Lazkano: ahotsa

Eneko Benito: alboka eta albokotea

Iker Alvarez: gitarra, koruak eta teklatura

Josu Elorduy: trikitia